# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2017IPLE0006
**Eguna:** 2017/05/31
**Ordua:** 13:45 – 14:21
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martin Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Olaia Pastoriza Santos | EAJ-PNV |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Urkiri Salaberria Gracia | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHbildu |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHbildu |
| - Ander Goicoechea Ocariz | EHbildu |
| - Ainara Vázquez Martinez | EHbildu |
| - Iker Goñi Salaberria | EHbildu |
| - Mª Teresa Bernal Monroy | EHbildu |

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

**Bertaratutako udal teknikariak**

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

**Idazkaria**

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2017ko apirilaren 26ko aktaren onarpena.** | **1** | Aprobación del acta de 26 de abril de 2017. |
| **Astigarraga Lantzen, S.A.ko 2016ko kontuak eta ordezko kontu-hartzailearen komunikazioa** | **2** | Aprobación cuentas 2016 Astigarraga Lantzen, S.A. y comunicación de la interventora accidental |
| **Astigarraga Lantzen, S.A.-ren maileguaren luzapena.** | **3** | Aprobación prórroga préstamo Astigarraga Lantzen, S.A. |

| | | |
|---|---|---|
| **2016 ekitaldiko kredituen txertaketa eta kontu-hartzailearen txostenaren komunikazioa.** | **4** | Incorporación de créditos del ejercicio 2016 y comunicación del informe de la interventora. |
| **Hiri-hondakinak bildu eta tratatzeko udal-ordenantzaren aldaketa zehatza: alegazioei erantzutea eta behin betiko onartzea.** | **5** | Modificación puntual de la Ordenanza Reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos. Contestación de las alegaciones y aprobación definitiva. |
| **Ergobia Ibilbidea' –HEA 9.1ko unitatean Kontxa Etxeberria plaza 7, 8 eta 9an udalaren etxeak Babes sozialean ipintzeko zozketako Oinarrien onarpena.** | **6** | Aprobación de las Bases que regirán el sorteo de las viviendas de protección oficial en la unidad 9.1 Ergobia Ibilbidea – Kontxa Etxeberria plaza 7,8 y 9 |
| **2018ko herriko jaia izendatzea** | **7** | Designación día festivo local 2018 |
| **Udalak GFAk dituen legezko ordezkarien erroldara kontsultan sarbidea edukitzea** | **8** | Acceso del Ayuntamiento para consultar el censo de representantes legales de la DFG. |
| **Udalen eta Izenperen arteko hitzarmena, udala erregistro-erakunde gisa funtziona dezaten B@kQ identifikazio sistema elektronikoak igortzeko** | **9** | Convenio entre el Ayuntamiento e Izenpe para funcionar como como entidad de registro en la emisión del sistema de identificación electrónico B@kQ |
| **Informazio, galdera eta eskariak.** | **10** | Información, ruegos y preguntas |

**1.- 2017ko apirilaren 26ko aktaren onarpena.**

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du 2. aztergaian akats bat dagoela, 2. paragrafoan adierazten baita "*Gruas Zapirainen inguruan bere taldeak egindako alegazio onartuz gero, alde bozkatuko dutela eta bestela kontra*", eta esan zutela onartzen ezean abstenitu egingo zirela.

Aldaketa hori egin ondoren, akta aho batez onartu da.

**1.- Aprobación del acta de 26 de abril de 2017.**

El concejal Andoni señala que en el 2º asunto tratado, ya que en el 2º parráfo se señala que "*en caso de aprobarse la propuesta realizada por su grupo al respecto de Grúas Zapirain, votarán a favor y en caso contrario lo harán en contra*", cuando señalaron que de no aceptarse se abstendrían.

Realizada esta modificación el acta se aprueba por unanimidad.

**2.- Astigarraga Lantzen, S.A.ko 2016ko kontuak eta ordezko kontu-hartzailearen komunikazioa**

Alkateak Astigarraga Lantzen SAren Junta

**2.- Aprobación cuentas 2016 Astigarraga Lantzen, S.A. y comunicación de la interventora accidental**

La Alcaldesa presenta la siguiente

Orokorrak onartutako agiri hauek aurkeztu ditu: egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua eta horien inguruan ordezko kontu-hartzailearen txostena. Eta akordio hau hartzea eskatu du.

documentación aprobada en la Junta General de Astigarraga Lantzen: balance de situación, cuenta de perdidas y ganancias e informe realizado por la interventora accidental. Y solicita que se adopte el siguiente acuerdo:

***Bakarra**.- Astigarraga Lantzen SAko 2016ko kontu orokorrak onartzea.*

***Único***.- Aprobar la Cuenta General 2016 de Astigarraga Lantzen SA

Jarraian **proposamena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

A continuación se procede a la votación de la **propuesta**, que **se aprueba por unanimidad**.

**3.- Astigarraga Lantzen, S.A.-ren maileguaren luzapena.**

**3.- Aprobación prórroga préstamo Astigarraga Lantzen, S.A.**

Alkateak Astigarraga Lantzen S.A. batzar orokorreko eskaera hau aurkeztu du onartua izan dadin:

La alcaldesa ha presentado, para su aprobación, la siguiente solicitud de la junta general de Astigarraga Lantzen S.A.

***Bakarra.-** Astigarraga Lantzen S.A. elkarteak Astigarragako Udalarekin duen 290.785,13 euroko zorra 3 urtez luzatzea.*

***Unico.-** Aprobar el acuerdo para la definición de las funciones del grupo técnico interdepartamental.*

Jarraian **eskaera** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

A continuación se procede a la votación de la **solicitud**, que **se aprueba por unanimidad**.

**4.- 2016 ekitaldiko kredituen txertaketa eta kontu-hartzailearen txostenaren komunikazioa**

**4.- Incorporación de créditos del ejercicio 2016 y comunicación del informe de la interventora.**

Alkateak 2016 ekitaldiko kredituen txertaketaren berri eman du, baita 2017ko apirilean udal kontu-hartzaileak egindako txostenarena ere.

La alcaldesa da cuenta de la incorporación de créditos del ejercicio del 2016, así como del informe del interventor municipal emitido en abril del 2017.

**5.- Hiri-hondakinak bildu eta tratatzeko udal-ordenantzaren aldaketa zehatza: alegazioei erantzutea eta behin betiko onartzea.**

**5.- Modificación puntual de la Ordenanza Reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos. Contestación de las alegaciones y aprobación definitiva.**

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

La alcaldesa presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

***Lehenengoa.-** EH BILDU Talde Politikoak aurkeztutako alegazioei, zentzu hauetan*

***Primero.-** Contestar a las alegaciones presentadas por EH BILDU, en el siguiente*

*erantzutea:*

*- 1go. alegazioa: hondakinen gelei buruzko alegazioa ez onartzea.*

*- 2. alegazioa: alegazioa aintzat hartzea adosten du, akats ortografikoa izan baita.*

*- 3. alegazioa: pixoihalak jasotzeko alegazioa ez onartzea.*

*- 4. alegazioa: alegazioa aintzat hartzea adosten du, Ordenantzan 32. artikulua honela berridatziz:*

*32. artikulua. Mini Garbiguneak*

*Herrian zehar dauden mini garbiguneetan, hondakin mota hauek utz daitezke, beti ere, bakoitza dagokion gunean sartuz:*

*Cdak/DVDak*
*PILAK*
*KARTUTXOAK*
*BONBILAK ETA HALOGENOAK*
*ESKUKO TELEFONOAK*
*RAEE*
*KONTSUMO TXIKIKO BONBILAK*

***Bigarrena.-** Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza behin betiko onartzea, beti ere onartutako aldaketak ordenantzan txertatuaz.*

***Hirugarrena.-** Behin betiko onarpenaren akordioa eta ordenantza osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitara ematea.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta bere taldeak aurkeztutako alegazioen nondik norakoak azaldu ditu. Adierazi du aurkeztutako 4 alegazioetatik 2 haintzat hartu direla eta beste 2 ez. Gaineratu du batetik, ez dutela zentzuzko ikusten eraikinetako honakin-gelak kentzea, eta

*sentido:*
*- 1ª alegación: desestimar la alegación sobre los cuartos de residuos.*

*- 2ª alegación: aceptar íntegramente la alegación, por considerarse un error ortográfico.*

*- 3ª alegación: desestimar la alegación sobre la recogida diferenciada de pañales.*

*- 4ª alegación: aceptar la alegación presentada, redactado el artículo 32 de la siguiente manera:*

*Artículo 32. ”Mini Garbigunes”.*

*En los Mini Garbigunes colocados en diferentes puntos del municipio se podrán depositar los siguientes tipos residuos:*
*Cds/DVDs*
*PILAS*
*CARTUCHOS*
*BOMBILLAS Y HALÓGENAS*
*TELÉFONOS MÓVILES*
*RAEEs*
*BOMBILLAS DE BAJO CONSUMO*

***Segundo.-** Aprobar definitivamente la Ordenanza municipal reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos, una vez introducidas las modificaciones de las alegaciones aceptadas.*

***Tercero.-** Publicar el acuerdo de aprobación definitiva y la Ordenanza en su integridad en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web municipal.*

Toma la palabra el concejal Andoni y expone los pormenores de las alegaciones presentadas por su grupo. Señala que de las 4 presentadas se han tenido en cuenta 2 y las otras 2 no. Además, añade que no les parece razonable que se supriman los cuartos de residuos de los edificios, y que llevar a cabo la

herritarrei ez direla jakinaren gainean jarri; eta bestetik, pardelak errefusatik aparte jasotzeak birziklatze tasa handitzea dakarrela, eta horretarako beste kontenedore bat ez jartzea galdeketan erabakitakoa ez errespetatzea dela. Halaber, salatu du ordenantza indarrean sartu aurretik kendu izana hondakin-gelak. Eta bukatzeko eskatu du irizpena puntuz puntu bozkatzea.

Alkateak erantzun dio ez dagoela arazorik irizpena horrela bozkatzeko. Bestalde, azaldu dio hondakin-gela kentzearen arrazoia zerbitzua ematen duen enpresaren txostenean duela jatorria, bertan adierazten baitzen segurtasun eta irisgarritasun arazoak zeudela, eta pentsatu dutela egokiagoa zela edukiontziak kalera ateratzea. Gaineratu du zerbitzu guztia ez dagoela martxan, eta piskanaka moldatzen joan beharko dutela, baina pardelak oraingoz ez direla aparte jasoko. Bukatzeko adierazi dio ez duela berririk hondakin-gelak kendu izanaren inguruan.

Andoni zinegotziak erantzun dio hondakin-gelak kendu egin direla, eta erregistroz kexa bat aurkeztu dela, eta alkateari galdetu dio bizilagun horri zer erantzun zaion, eta adierazi du erantzunaren kopia bat jasotzea gustatuko litzaiokeela. Alkateak bidaliko diola erantzun dio.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

- Aho batez honako hauek onartzen dira: 1. puntuko 2. eta 4. alegazioak, eta 2. eta 3. puntuak,

- Aldeko 6 botoekin (EAJ-PNV), kontrako beste 6 botoekin (EHBildu) eta alkatearen kalitateko botoarekin onartzen dira 1. puntuko 1. eta 3. alegazioak.

**6.- Ergobia Ibilbidea' –HEA 9.1ko unitatean Kontxa Etxeberria plaza 7, 8 eta 9an**

recogida de pañales de manera independiente a la de la fracción resto conlleva un aumento de la tasa de reciclaje, y que no instalar un contenedor para ello supone no respetar lo que se acordó en la consulta. Asimismo, denuncia la supresión de los cuartos de residuos antes de la entrada en vigor de la ordenanza. Y para concluir, solicita que el dictamen se vote punto por punto.

La alcaldesa le responde que no hay problema para votar el dictamen de esa manera. Por otra parte, le expone que la razón de la supresión del cuarto de residuos tiene su origen en el informe emitido por la empresa que presta el servicio, dado que se indica que existen problemas de seguridad y accesibilidad, y que han pensado que es más apropiado sacar los contenedores a la calle. Añade que no todo el servicio está en marcha, y que deberán ir adaptándose progresivamente, pero que por el momento los pañales no se recogerán parate. Para concluir, señala que no tiene conocimiento de la eliminación de los cuartos de residuos.

El concejal Andoni le responde que los cuartos de residuos han sido suprimidos, que se ha presentado una queja en registro, y pregunta a la alcaldesa qué respuesta se le va a dar al vecino, señalando también que le gustaría recibir una copia de la misma. La alcaldesa le indica que se la enviará.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, puntu por punto:

- Se aprueba por unanimidad la constestación de las alegaciones 2ª y 4ª del punto 1º y los puntos 2º y 3º,
- Se aprueba con 6 votos a favor (EAJ-PNV) y 5 en contra (EHBildu) y el voto de calidad de la alcaldesa las alegaciones 1 y 3 del punto 1º.

**6.- Aprobación de las Bases que regirán el sorteo de las viviendas de protección oficial**

**udalaren etxeak Babes sozialean ipintzeko zozketako Oinarrien onarpena.**

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

> ***Lehenengoa.-*** *Kontxa Etxeberria plazako 7-8-9 atarietan alokairu sozialeko erregimeneko 6 etxebizitza libre zozketatzeko baldintzak onartzea.*
>
> ***Bigarrena.-*** *Baldintzak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udal Iragarki taulan eta Lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duen egunkarietan argitaratzea, interesatuek eskabidea 20 egunetako epe batean aurkeztea izango dutelarik, deialdi honetako oinarriak azken iragarkia ofizialki Astigarragako Udalaren Iragarki-taulan edo Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.*
>
> ***Hirugarrena.-*** *Jendeak apuntatzeko aukeren berri izan dezan, bando bat egitea herrian zehar.*

Andoni zinegotziak galdetu du etxebizitza hauen eta horiekin batera udalak jaso beharreko lokalaren eskrituraren gaia nola dagoen. Alkateak erantzun dio EHBildu taldeak eskatu bezala, oraingoz etxebizitzen eskriturak sinatuko direla, eta lokalarena, berriz, aurrerago sinatzeko utziko dela, jakin arte zer gertatzen den eremuko horretako hirigintza-hitzarmenarekin.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

**en la unidad 9.1 Ergobia Ibilbidea – Kontxa Etxeberria plaza 7,8 y 9**

La alcaldesa presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

> ***Primero.-*** *Aprobar las condiciones para el sorteo de 6 viviendas libres en los portales 7-8-9 de Kontxa Etxeberria plaza en régimen de Alquiler Social.*
>
> ***Segundo.-*** *Publicar las Bases en el B.O.G., en el Tablón de anuncios municipal y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio, abriendo un plazo para la presentación de solicitudes de 20 días, contados desde la última publicación del anuncio de la presente convocatoria en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Astigarraga o en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*
>
> ***Tercero.-*** *Con el fin de darle mayor difusión, colocar un bando por todo el municipio.*

El concejal Andoni pregunta en qué punto está el tema de las escrituras de esas viviendas y del local que el ayuntamiento tiene que recibir junto con ellas. La alcaldesa le responde que, tal y como solicitó el grupo EHBildu, de momento se firmarán las escrituras de las viviendas y que la del local, se dejará para más adelante, hasta saber qué ocurre con el convenio urbanístico de ese área.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

**7.- 2018ko herriko jaia izendatzea**

Alkateak bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

> *Uztailaren 25a, Astigarragako zaindariaren eguna, herriko jaia izendatzea 2018an.*

**7.- Designación día festivo local 2018**

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la junta de portavoces:

> *Designar el día 25 de julio, patrón de Astigarraga, día festivo local del 2018.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du ez duela gai hau eztabaida politikoa bihurtu nahi, baina bere taldeak hobe ikusten duela Santa Ana eguna izandatzea herriko jai eguna: Astigarragako jaietan egun garratzitsua delako eta erlijiiorekin zer ikusia ez duena. Gaineratu du erabakiaren arrazoia ulertzen dutela, eta abstenitu egingo direla.

Toma la palabra el concejal Andoni e indica que no quiere convertir este asunto en un debate político, pero que su grupo ve más adecuado la designación del día de Santa Ana como fiesta de la localidad: porque es un día importante dentro de las fiestas de Astigarraga y no está relacionado con la religión. Añade que comprenden la razón de la decisión y que se van a abstener.

Alkateak erantzun dio Jaurlaritzarekin hitz egingo dutela, bi egunak jai eguntzat hartzeko.

La alcaldesa le responde que hablarán con el Gobierno Vasco para que ambos días sean considerados festivos.

Urkiri zinegotziak hitza hartu eta adierazi du Santa Ana eguna erlijio kutxua ere duela, eta horrek, ordezkarien artean desadostasuna eragin du jai ekintzetan erlijio kutxutzat zer ulertu behar den inguruan.

Toma la palabra el concejal Urkiri y manifiesta que el día de Santa Ana tiene cariz religioso, lo que ha originado un desacuerdo entre los representantes respecto a qué se debe entender como cariz religioso, en los actos festivos..

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta onartu da aldeko 6 botoekin (EAJ-PNVko kideak) eta 6 abstentzioekin (EHBilduko kideak).

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba** con 6 votos a favor (de los miembros de EAJ-PNV) y 6 abstenciones (de los miembros de EHBIldu).

**8.- Udalak GFAk dituen legezko ordezkarien erroldara kontsultan sarbidea edukitzea**

Alkateak bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

> ***Lehena**.- Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Udalak informazioa elkarri lagatzeko lankidetza hitzarmenaren eranskin berri bat ONARTZEA, hain zuzen, D-7 eranskina "Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta" izenekoa,*
>
> ***Bigarrena**.-Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko, eta baita hori garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

8.- **Acceso del Ayuntamiento para consultar el censo de representantes legales de la DFG**.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la junta de portavoces:

> ***Primero**.- Aprobar el anexo denominado D-7 "Consulta de los datos obrantes en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa" dentro del convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y el Ayuntamiento.*
>
> ***Segundo**.- Autorizar a la alcaldesa a la firma de este anexo y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar el mismo.*

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

**9.- Udalen eta Izenperen arteko hitzarmena, udala erregistro-erakunde gisa funtziona dezaten B@kQ identifikazio sistema elektronikoak igortzeko**

Alkateak bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

> ***Lehena***.- *Udala erregistro-erakunde gisa funtziona dezan B@kQ identifikazio sistema elektronikoak igortzeko IZENPErekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena ONARTZEA.*
>
> ***Bigarrena***.- *B@kQ eskaeren kudeaketa bulego orokorretik bideratzea, eta kudeaketaren arduraduna izendatzea udaleko informatikaria.*
>
> ***Hirugarrena***.- *Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko, eta baita hori garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

**9.- Convenio entre el Ayuntamiento e Izenpe para funcionar como como entidad de registro en la emisión del sistema de identificación electrónico B@kQ**

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la junta de portavoces:

> ***Primero.- Aprobar el convenio a celebrar con IZENPE, para que el Ayuntamiento funcione como entidad de reg****istro en la emisión del sistema de identificación electrónico B@kQ.*
>
> ***Segundo***.- *Gestionar las solicitudes de B@kQ desde la oficina de información (registro), y nombrar como responsable de la gestión al informático municipal.*
>
> ***Tercero.-*** *Autorizar a la alcaldesa a la firma de este convenio y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar el mismo.*

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

**10.- Informazio, galdera eta eskariak**

a.- Elionea eta Larraburuko auzi-errekurtsoa.

Alkateak adierazi du epaia iritsi dela eta udalaren aldekoa izan dela, baina kasazioan errekurritu daitekeela.

Azaldu du aurreko legealdian erabaki zela Donostiaren kontra auzi-errekurtsoa jartzea 37 bat hektareako lurzatia udalaren izenean inskribatzeko; eta Donostiako auzitegiak kontrako epaia eman ondoren, legealdi honen hasieran erabaki zela helegitea aurkeztea. Gaineratu du desanexio garaitik datorren gai bat dela eta Astigarragako alkate guztiak zoriondu ditu gai honen inguruan egindako lanarengatik: Antton

**10.- Información, ruegos y preguntas**

a.- Recurso contencioso sobre Elionea y Larraburu.

La alcaldesa señala que se ha recibido la sentencia y que esta ha sido favorable al ayuntamiento, pero que puede ser recurrida en Casación.

Expone que en la anterior legislatura se acordó interponer recurso contencioso-administrativo contra San Sebastián para inscribir una parcela de unas 37 hectáreas a nombre del ayuntamiento y tras fallar en contra el juzgado de San Sebastián, a principios de esta legislatura, se acordó recurrir. Añade que se trata de un asunto que se remonta a tiempos de

Arka, Mikel Zabala, Eli Laburu, Bixente Arrizabalaga, Andoni Gartzia eta Jesus Mª Santos.

Andoni zinegotziak azaldu du behin baino gehiagotan bidali direla idatziak Donostiako Udalera lur horiek emateko eskatuz, baina ez zenez ezer lortu, aurreko legealdian Bilduk, EAJ-PNV taldearen babesarekin, auzi-errekurtsoa sartzea erabaki zela. Eta herriarentzat berria ona bezala kalifikatu du, eta adierazi desanexioaren 30. urtemugaren opari ona dela.

Alkateak erantzun dio ez dela bere asmoa izan meritua kentzea Bilduk egindako lanari, baina beste alkate batzuk ere gaiaren inguruan lan egin dutela, esaterako, Bixente Arrizabalagaren garaian udal-inbentarioan sartu zela. Azken adierazpen horrek bi partaideen arteko eztabaida eragin du gaiaren inguruan urte hauetan egindako lanaren inguruan.

la desanexión y ha felicitado a todos los alcaldes y alcaldesas por el trabajo realizado en torno a ese tema: Antton Arka, Mikel Zabala, Eli Laburu, Bixente Arrizabalaga, Andoni Gartzia y Jesus Mª Santos.

El concejal Andoni señala que se habían enviado escritos al Ayuntamiento de San Sebastián en más de una ocasión solicitando la entrega de los terrenos, pero al no haberse logrado nada al respecto, Bildu decidió en la anterior legislatura, con el apoyo del EAJ-PNV, interponer un recurso contencioso. Y lo ha calificado como una buena noticia para la localidad y ha señalado que se trata de un buen regalo con motivo del 30 aniversario de la desanexión.

La alcaldesa le responde que no era su intención restar méritos a la labor realizada por Bildu, pero que también ha habido otros alcaldes y alcaldesas que han trabajado en torno a ese tema, como, por ejemplo, cuando en la época de Bixente Arrizabalaga se incluyó el terreno en el inventario municipal. Esa última afirmación ha originado un debate en torno a la labor llevada a cabo durante estos últimos años.

b.- DBH

Andoni zinegotziak galdetu du DBHren inguruan bidaliko idatziari buruz Delegaritzak zerbait erantzun duen. Alkateak erantzun dio oraindik ez dela ezer jaso.

b.- ESO

El concejal Andoni pregunta si Delegación ha respondido algo en sobre al escrito enviado respecto a la ESO. La alcaldesa le responde que aún no se ha recibido nada.

c.- Pertsonal batzordea

Andoni zinegotziak pertsonal batzorde noiz egingo den galdetu du. Alkateak erantzun dio ekainean egingo dela, eta RPTaren onarpena ekaineko osoko bilkurara eramango dela.

c.- Comisión de personal

El concejal Andoni pregunta cuándo se va a realizar una comisión de personal. La alcaldesa le responde que en junio y que la aprobación de la RPT se llevará al pleno de ese mes.

d.- Arrobitxuloko harrobia egonkortzeko obra

Andoni zinegotziak galdetu du obra esleitzeko kontrazio espedientea nola dagoen. Udal idazkariak erantzun dio proposamenak

d.- Obra para estabilizar la cantera de Arrobitxulo

El concejal Andoni pregunta en qué punto se encuentra el expediente de contratación de la

aurkezteko epea ekainaren 5ean bukatzen dela.

adjudicación de obra. La secretaria municipal le indica que el plazo para la presentación de propuestas finaliza el 5 de junio.

e.- Sagardo plazako hiritartze-obra

Andoni zinegotziak gaia nola dagoen galdetu du. Jon zinegotziak erantzun dio hurrengo obra eta zerbitzuak batzordera eramango dela, eta alkateak, berriz, jolas-gunearen kokapena udalak erabakiko duela eta jarriko diren jokoan bizilagunak. Azken horrek gaineratu du proposamena osatuta dagoenean aurkeztuko dutela, baina gune zabala egiteko asmoa dagoela.

e.- Obra de urbanización de Sagardo plaza

El concejal Andoni pregunta en qué punto se encuentra el tema. El concejal Jon le responde que el tema será llevado a la siguiente comisión de obras y servicios, y la alcaldesa, por su parte, que el emplazamiento de la zona de juegos será acordado por el ayuntamiento y los juegos a instalar, en cambio, por el propio vecindario. Añade también que la propuesta se presentará cuando esté completada, pero que la idea es habilitar una zona amplia.

f.- Bilera Hezkuntza Delegaritzarekin.

Andoni zinegotziak adierazi du jakin duela udal gobernu taldeak delegaritzarekin bilera eduki duela, eta horren inguruko informazio eskatu du.

Alkateak erantzun dio bilera egin dutela herriko ikuspuntu orokor bat eduki zezaten nahi dutelako. Gaineratu du bere taldeak hezkuntza arloan lan ixila egiten dagoela, eta asmoa dela ikastolaren egoerari irtenbide bat ematea behin betikoz, eta zerbait itxita duetenean horren berri emango dutela batzordean, eta ikastola era jakinaren gainean jarriko dutela.

f.- Reunión con la Delegación de Educación.

El concejal Andoni comenta que sabe que el equipo de gobierno ha mantenido una reunión con la delegación, y solicita información al respecto.

La alcaldesa le responde que han celebrado esa reunión porque quieren que tengan una perspectiva general sobre la localidad. Añade que el equipo está realizando una labor silenciosa en el área educativa, y que pretende dar una solución definitiva a la situación de la ikastola, y que cuando tengan algo cerrado al respecto informará de ello en la comisión, y que pondrán también a la ikastola al corriente de la situación.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2017ko maiatzaren 31n.

**Kontxi Urdampilleta Santamaría**
**Ordezko idazkaria**